

(2021) MAIATZAK 24 "BAKEAREN ETA ARMAGABETZEAREN ALDEKO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA"

Gaur, maiatzaren 24a, bakearen eta armagabetzearen aldeko emakumeen nazioarteko eguna dela eta, kalera irtetzen gara, emakumeek, gerraren zein gerrari eusten dion makineria guztiaren aurka historikoki eta gaur egun garatzen dituzten borrokak eta lorpenak gogora ekartzeko.

Emakumeak, IRGren sorrera-adierazpenarekin leial garenok, argi eta garbi esaten dugu: "Gerra gizateriaren aurkako krimena da. Horregatik, hitz ematen dut ez dudala gerrarik babestuko, eta haren kausa guztiak desagerrarazteko borrokatuko naizela. "

Hitz horiek esan eta 100 urtera, sokatik tiraka jarraitzen dugu, gerrak hilko ez duen eta bakeak zapalduko ez duen gizarte bat eraikitzeko.

Pairatzen ari garen osasun eta gizarte krisialdiak erakusten digu zein zentzugabekeri globalean gauden, zein ahulak garen. Bizi garen gizarte-eredua birpentsatzeko premia atzeraezina dugu.

Ikusten ari garenez, egungo testuinguruan, militarizazioaren, beldurraren eta baliabiderik ezaren ondorioz, murrizketek are gehiago eragiten diete kolektibo behartsuenen, emakumeei eta munduko leku askotan gerretatik ihes egin duten pertsonen.

Beraz, bakea aldarrikatzen dugu, ez soilik gerrarik eza, baizik eta desberdintasunak eta indarkeriak eusten dituzten egitura guztiak desagerraraztea. Horregatik, feminista eta antimilitarista garen aldetik, bizitza eta zaintzak erdigunean jartzeko premia berresten dugu.

Horregatik ez dugu onartzen gure lurraldeetatik ere gerra eraikitzea,² gure lurraldeetako arma-industrietan eta gastu militarretara bideratutako inbertsio publikoan hasten den gerra, hain zuzen ere. Premiazkoa da benetako bake-gizartea eraikiko duten gastu sozialetara bideratzea gerren negoziara bideratzen dena.

Gerrak indarkeria patriarkalaren adierazle nagusizat hartzen ditugu.

Indarkeriarekin eta armekin lotutako maskulinitatearen kontzeptuan oinarritzen diren gerra heteropatriarkal, inperialista, arrazista, klasista eta kapitalisten aurrean, gure feminismoak erdigunean jartzen du bizitza. Bizitza duina pertsona guztientzat. Horregatik, gure feminismoak gerren aurka daude erabat.

Gerra horiek, sarritan, helburu militar eta gerra-harrapakin bihurtzen dute emakumeen gorputza, eta etsaia umiliatzeko tresna.

Horixe da Sultana eta Luaara Khaya saharar ahizpa ekintzaileen kasua, duela egun gutxi Marokoko okupazio indarrek bortxatu egin baitituzte.

Emakume horien ausardia azpimarratu nahi dugu, jasandako minaren eta estereotipo kulturalen gainetik gertakariak salatuz, gure elkartasunik handiena merezi baitu.

Hemendik erakusten dugu gure erabateko gaitzespena gertakari horiei; bide batez esanda, gertakari horiek sistematikoki gertatzen dira gatazkan dagoen edozein lurraldetan.

Hondamendia, heriotza, miseria eta behartutako joan-etorriak eragiten dituzten gerrak dira sistema kapitalistaren oinarri.

Gerra horiek transnazional boteretsuen, elite publikoen, higiezinaren eta gizarte garapen estrategikoen erakundearen arteko adostasunarekin gauzatzen dira, populazio politikoaren zati handi baten ardura agabekeriarekin, arrotz eta urrunekotzat hartzen dituztenak, eta, hala ere, zeharka bada ere, onura ateratzen dietenak.

Bakearen eta armagabetzearen aldeko Emakumeen Nazioarteko Egunean, osasun-krisi global honen erdian, gizateria osoa egoera kezagarri horretara eraman duen gizarte eredu berriz aztertzeo deia egiten dugu.

Premiazkoa da gizarte desmilitarizatzea.

Premiazkoa da gastu militarrik kentzea eta zerbitzu publikoetan eta pertsonen ongizatean berriz inbertitzea.

Premiazkoa da armagintzaren industria erabilera zibilerako ekoizpen bihurtzea, irizpide etiko, iraunkor eta solidarioak kontuan hartuta.

Premiazkoa da kontsumismoari muga jartzea, neurrigabea, jasanezina planeta-baliabideei dagokienez, eta bateraezina pertsona guztientzat ona den bizitzarekin.

Badakigu elkarrekin baino ez garela salbatzen, laguntza-sareak ehunduz, zainduz eta kolektiboki eraikiz.

Garaia da armekin eta industria militarrekin amaitzeko, eta bitzita politikaren eta sistemaren erdigunean jartzeko.